

heroina



ailaket!!

konposizioa, itxura eta aizunketa

01



heroina zaldia, jakoa...

Diazetilmorfina edo heroina substantzia erdisintetikoa da. Opiazeo bat da; opiotik morfina ateratzen da eta haren azetilaziotik abiatuta lortzen da heroina.



Hauts zuri edo marroi itxura du, jatorriaren arabera.

Aizunketa handiena izan ohi duen substantzia da, normalean kafeinarekin eta parasetamolarekin nahasten da eta, neurri txikiagoan, beste substantzia batzuk ere ager daitezke, hala nola kaltzio sulfatoa, kaltzio karbonatoa eta azido borikoa. Laginen batez besteko purutasun-maila % 11koa da.*




* Ai Laket!! elkarteak EAEn egindako analisien arabera datuak.

dosia zenbatekoa den eta nola hartzen den

02

Atsegin hartzeko guneetan heroina hartzeko modurik ohikoena erretzea edo sudurretik (esnifatua) hartzea da. Batez besteko dosia 15 mg dira eta sekula ez luke izan behar 250 mg baino handiagoa, heriotza eragin bailieziaieke tolerantziarik ez duten pertsoneri.



Zainetik sartzea, duela urte batzuk hain hedatua zegoena, egonkoritu egin da, nahiz eta ez den ohikoa aisia-guneetan.



hasierako ondorioak

03

01

Heroinaren ondorioak ez dira beti berdinak. Hainbat alderdik du eragina: zenbateko dosia hartzen den, non-nola hartzen den, aldarre onean edo txarrean egon bitartean hartzen den, zer espero den eta pertsona nolakoa den.

02

Nerbio-sistema zentralaren depresioa da heroina eta propietate analgesikoak ditu. Erreta edo sudurretik sartuta hartuz gero, minutu gutxiren buruan nabaritzen dira haren ondorioak.

03

Hartu ondoren, eta dosi txiki batekin, euforia eta ondorio analgesikoa eragiten ditu berehala, lasaitasuna eta ongizatea sentituz, eta aldi berean, nerbio-sistema zentralaren depresioa eragiten du, pultsua eta arnas-erritmoa mantsotuz.



04

Kontsumoak goitikakoak eta sabeleko minak eragin ohi ditu, batez ere tolerantzia txikia duten pertsoneri.

05

Dosi ertainetik handira igaroz gero, ameskizun-egoera etengabe batetik aldizkako amets-egoera batera pasatzen da.

06

Fisikoki, bero-sentsazioa, azkura arinak eta txizagura (txiza egiteko nolabaiteko ezintasuna izan arren) eragiten ditu. Halaber, begi-niniak nabarmen uzkurrazten ditu.

ondorioak epe ertain eta luzera

04

01

Ohiko kontsumoetan, albo-ondorioak organismoaren desdoitze hormonala eragiten dute, zeinaren ondorioz gerta baitaiteke: pisua nabarmen galtzea, osteoporosia garatzea, libidoa txikiagotzea edota hilerokoaren zikloa aldatzea.

02

Arlo psikologikoan, ohikoak dira depresio- eta antsietate-arazoak, eta, orobat, nortasun-nahasmenduak. Gaixotasun horiek, substantziari berari baino, adikzio-prozesuari daude lotuago.

03

Heroinak tolerantzia handia eta berehalakoa eragiten du, eta mendekotasun psikikoa eta fisikoa eragiteko ahalmen handia du.

03

Denbora gutxian zehar egunero hartzeak mendekotasun fisikoa eragiten du, eta hala agertzen da abstinentzia-sindromea: goragaleak, goitikakoak, zorabioak, dardarak, antsietatea... Kontsumoa etetean gertatzen da hori, eta egunak edo asteak iraun ditzake, mendetasun-mailaren arabera.

Alkoholarekin batera hartuz gero, goragaleak areagotu egiten dira eta litekeena da goitika egitea. Horrez gain, biak ala biak depresoreak direnez, ondorio hori indartu egiten da bizi-funtzioetan.



Estimulatuzaileekin batera hartuta, euforia-puntu bat lortzen da, eta horrek ondorio lasaigarriak indargabetzen laguntzen du. Bi substantziok batera hartzeak, normalean, biak gehiago kontsumitzera darama, arriskuak ere handituz.



HEROINA + ALKOHOLA



HEROINA + ESTIMULATZAILEAK

Kontuan hartu ondorengo arrisku egoerak:



gaixotasun mentalak izatea.

gibeleko, pankreako edo bihotzeko arazoak izatea.

sendagaiak aritzea.

haurdun edo edoskitze garaian egotea.

arriskuko edo arreta handiko zer edo zer egin behar izatea, esate baterako, gidatzea.

hazteko adinean egotea.

Kontsumitzea erabaki baduzu...

Aurretik

Substantziaren berri jakitea komeni da, gozamina eta arriskuak zuk zeuk neurtzeko.



Informazioa eskuratzeko bide ona Ai Laket!! elkarteko programetara jotzea da. Substantziari berari buruzko informazioa emango dizugu, bai eta dosiari buruzkoa ere, printzipio aktiboaren kopurua, aizunketa...

Kontsumoa planifikatzea da onena. Mugak ezarri, eta bete itzazu.

Tristurari, loezinari edo beheraldiei aurre egiteko hartzen bada, gogoan izan aise handitu daitekeela haren kontsumoa, denbora gutxian mendetasuna sortuz.

Planifika eta neur itzazu aldeaz aurretik lortu nahi dituzun ondorioak. Gogoan izan, errez gero, segundo gutxiren buruan nabaritzen direla ondorioak, oso biziak direla eta segundo gutxi irauten dutela.

Bitartean

Kalkula ezazu dosia, heroinaren arrisku handienetako bat gaindosia gertatzea da: koma-egoerara eraman zaitzake eta bihotzekoa eragin.

Zainetik sartzea da heroina hartzeko modurik arriskutsuena eta erasotzaileena. Erabilera seguruagoa egiteko, galdetu ezazu zerbitzu hori ematen duten informazio-guneetan.



Erabili zure turutoa eta ez utzi beste inori. Hartara, gaixotasunak kutsatzeko arriskua murriztuko da (gripea, C hepatitis...)

Txandakatu sudurzuloak, sudur-trenkada hainbeste ez kaltetzeko.

Heroinaren eraginpean sexu harremanak badituzu, erektzioa izatea eta bi sexuetan orgasmora heltzea zailagoa izan daiteke. Erabili kondoiak edo aho-hesiak haurdun ez geratzeko eta sexu-transmisiozko infekziorik ez harrapatzeko (kandidak, herpesak, hepatitis, GIB-hiesa eta abar). Kondoia erabiltzearen

erantzukizuna zuri dagokizu, ez beste inori. Ez utzi beste inoren eskutan.

Goza ezazu zure kontsumoa kontrolatuz, kulparik sentitu gabe eta zeure burua eta ingurunea errespetatuz.



Ondoren

Gogoratu kontsumitu ondoren sudurzuloak garbitzen, itsatsitako hondarrak kentzeko.

Gogoratu galdutako mantenuak eta kaloriak berreskuratzeko elikagai egokiak hartzen, hala nola bitamina eta kaltzio asko dutenak.



Baliteke hurrengo egunean nekatuta eta suminkor egotea.

Heroina-dosi bat hartu eta 12-24 orduz igartzen da odolean, 2 edo 4 egunera gernuan eta 1-2 egunera listuan. Datu horiek gutxi gorabeherakoak dira; izan ere dosiaren edo norberak drogen arrastoak ezabatze duen ahalmenaren arabera aldatu egiten dira.



Gogoan izan heroina justifikaziorik gabe edukitzeak edo kalean hartzeak 600 euro¹ edo gehiagoko isun-zigorra dakarrela. Trafikatzeak, saltzeak edo banatzeak kartzela-zigorra dakar.



¹2015/4 martxoaren 30eko Hiritar Segurtasunaren Babeserako Lege Organikoaren arabera.



Ai laket!! irabazi asmorik gabeko elkarteak da eta legez kanpoko drogen kontsumitzaile zein kontsumitzaile ohiek osatzen dute. Elkarrekin, kontsumo arduratsuen eta drogen erabileraren arriskuak murrizteko ikuspuntuetatik, substantzia psikoaktibo ezberdinekin bizitzeko ikastearen aldeko apustua egiten du. Izan ere, drogak kontsumitzea ala ez, pertsona helduek informazioa jaso ondoren kontsumitzea hartu beharrenek erabakia dela usteko du. Ai laket!!-en asmoa, beraz, ez da erabaki horren gainean eragina izatea, baizik eta informazio zehatza, praktikoa eta sinesgarria eskaintzea, kontsumitzeko erabakia hartzekotan, erabakia ondo hausnartutakoa izan dadin eta kontsumitzaileek zentzudun jokatzeko informazioa izan dezaten.

Jesusen Mirabeen Sortzailearen kalea, 40 etxabe. 01001 Vitoria-Gasteiz (+34) 945 23 15 60 ailaket@ailaket.com www.ailaket.com

diseinua: www.sinbaik.com

